



LASARTE-ORIAKO HERRITARREN PARTAIDETZARAKO UDAL-ERREGELAMENDUA.

I. TITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua. Arauaren helburua.

1.- Arau honen helburua Lasarte-Orian herritarren partaidetza sustatzea eta garatzea da, betiere tokiko demokrasiaren gardentasuna eta kalitatea bermatuz.

2.- Helburu hauexek lortu nahi dira:

a) Udalaren kudeaketari buruzko informazio argia eta egiazkoa herritarren esku jarri dadila sustatzea.

b) Pertsonen udalaren interes orokorrak babesten eta kudeatzen esku har dezatela erraztea, parte-hartzearen aldeko kultura hedatuz.

c) Parte hartzeko eskubidea osatzen duten alderdi desberdinak eta aitortzen diren eskubideak gauzatu ahal izateko bide eta organo desberdinak definitu eta arautzea.

d) Sektoreka eta lurraldeka parte hartzeko organo eta baliabideen sare bat antolatzea, parte hartzea ahalbidetuko dutenak.

e) Gizarte zibila indartu dadila sustatzea, elkartasunaren, besteeiko errespetuaren, erantzukizun partekatuen eta gizarte-kohesioaren gizarte-balioak hedatuz eta elkartegintza garatu eta indartu dadila sustatuz.

f) Berrespenezkoak ez diren herri-kontsulten bitartez herritarrek herri-politiken inguruan duten iritzia ezagutzeko baliabideak antolatu eta garatzea.



2. Artikulua. Arauaren aplikazio-eremua.

1.- Udalerriarekin duten edozein eratako harremanaren ondorioz, udal-organoei hartutako erabakiek eta udal-gobernuak burututako jarduerak eragiten dieten pertsona guztiek -pertsona fisikoak izan nahiz pertsona juridikoak izan- parte hartzen dutenean aplikatuko da arau honetan jasotako erregulazioa.

2.- Nolanahi ere, arau honetan erregulatutako eskubide jakin batzuk erabili ahal izateko, udalerriko herritar izatea eskatuko da baldintza gisa, edo taldeak izanez gero, herri-entitatea izatea edo arau honetan eskatutako beste betebeharrak batzuk betetzea.

3.- Herritarraren izaera hori lortzeko, Biztanleen Udal-Erroldan inskribatuta egon beharra dago.

4.- Arau honen ondorioetarako, arau honetako IV. Tituluan aurreikusitako prozeduren bitartez Herri Entitateen Udal-Erregistroan inskribatuz erdietsiko da herri-entitatearen izaera.

II. TITULUA

PARTE HARTZEKO ESKUBIDEAREN EDUKIA ETA HORI ERABILTZeko UDAL-BALIABIDEAK.

I. KAPITULUA. PUBLIZITATE AKTIBOA.

1. Atala. Informaziorako eskubidea.

3. Artikulua. Informaziorako eskubidea.

Benetako partaidetza gauzatu ahal izateko, ezinbestekoa da informazio egokia eta zabala, gardena, objektiboa eta kalitatezkoa egotea eta ezagutzera ematea.



Herritarrek eta dagozkien herri-entitateek informazio hori adierazitako baldintzetan jasotzeko eskubidea dute, udalaren jardueren inguruan ezagutza egiazkoa, eskuraerraza, ez-diskriminatzailea, xumea, laburra, herritarrentzat ulergarria, doakoa eta segurua eduki ahal izan dezaten.

Edozein pertsona fisikok nahiz juridikok eskubidea du udalaren jardueren inguruan eta horien aurrekarien inguruan interesatzen zaion informazioa eskatzeko, baita, oro har, udalaren zerbitzu eta jarduera guztien inguruan ere, indarrean dauden lege-xedapenekin eta arau honekin bat etorritz.

4. Artikulua. Artxibo eta erregistroetarako sarbide-eskubidea.

Pertsona guztiek eskubidea dute Udalaren ekintza eta erabakiak eta horien aurrekariak egiaztatzen dituzten kopiak eta ziurtagiriak eskuratzeko, baita udal-artxibo eta erregistroak kontsultatzeko ere, indarreko legerian aurreikusten diren baldintza eta mugekin.

Udal-administrazioak eskubide hau ukatzea edo mugatzea ebazpen arrazoitu baten bidez egiaztatu beharko du beti.

Eskaerak jasotzen diren unetik hasi eta hilabete bateko gehieneko epearen barruan erantzun beharko zaie. Epe hori beste hilabete batez luzatu ahal izango da, baldin eta eskatutako informazioaren bolumenak edo zailtasunak hala eskatzen badute. Kasu horretan, lehenengo hamar egunen barruan epe hori luzatu izana eta hori justifikatzen duen arrazoia jakinarazi beharko zaio eskatzaileari.

5. Artikulua. Erakundeei eta antolamenduari buruzko informaziorako eskubidea.

Alor honetan dituzten eskubideak hauek izango dira:



- a) Toki-entitatearen nahitaezko organoak eta organo osagarriak ezagutzea, horien titularrak, osaera, burutzen dituzten eginkizunak eta aplikatuko zaien araudia zehaztuz.
- b) Entitateko arduradun politiko gorenei eta gobernu-taldeari buruzko informazioa jasotzea, horien curriculum-datuak ere barne.
- c) Udaleko gobernu-planaren, agintaldi-planaren edo jardueraplanaren berri jakitea, horrelakorik baldin badago, eta horren gauzatze mailaren berri ere bai hainbestean behin.
- d) Alkatearen eta zinegotzien dedikazio-erregimena zein den ezagutzea.
- e) Entitatearen barruan aldi baterako izaera duten karguak ezagutzea.
- f) Udal-ordezkarien ondasun eta jardueren gaineko urteko aitorpenak ezagutzea, indarreko legerian ezarritako baldintzetan.
- g) Udaleko talde politikoei buruzko informazioa ezagutzea.
- h) Udaleko sail edo atalen antolamendu-egitura eguneratua ezagutzea, zuzendaritzako edo erantzukizunezko karguak bereziki aipatuz, baita lanpostu horiek betetzeko eskatutako profila eta lanpostu horiek betetzen ari diren pertsonen ibilbide profesionala ere.
- i) Kontsultarako eta gizarte-partaidetzarako organoak ezagutzea, horien jarduerak eta erabakiak ere barne.
- j) Edozein eratako entitate instrumentalak ezagutzea, horietan arduradun gorenak nor diren adieraziz eta horien antolamendu-egitura zehaztuz.
- k) Antolamendu-egitura desberdinen planak eta programak ezagutzea, horien helburu zehatzak, horiek gauzatzeko aurreikusitako baliabide eta epeak eta horien betetze-maila eta emaitzak identifikatuz, eta hainbestean behin horien inguruko ebaluazioa egin eta argitaratu egin beharko da, neurketarako eta balioespenerako adierazleekin batera, Erakundeak ezartzen duen moduan.



6. Artikulua. Zuzenbide eta araudi arloko informaziorako eskubidea.

Alor honetan dituzten eskubideak hauek izango dira:

a) Toki-entitateen ordenantza eta araudien Proiektuak nahiz aurrekontuen Proiektuak argitaratzea, gutxienez horiek hastapenez onetsi eta berehala.

b) Udal-organoek hartutako erabakiak eskuratu ahal izatea, Zuzenbidearen interpretazio bat dakartenean edo ondorio juridikoak dituztenean.

c) Kontsulta-organoen txostenak edo irizpenak eskuratu ahal izatea.

d) Herri-partaidetzarako prozesuaren memoria eta ondorioak eskuratu ahal izatea, horrelakorik egonez gero.

e) Hasi diren, abian diren eta amaituta dauden partaidetza-prozesuen berri edukitzea. Eta bereziki, prozesu horiekin loturiko txostenen berri edukitzea.

7. Artikulua. Udal-politika publikoei eta zerbitzu-zorroari buruzko informaziorako eskubidea.

Alor honetan dituzten eskubideak hauek izango dira:

a) Zerbitzu-zorroari buruzko berri jasotzea, bereziki adieraziz zein diren kasu bakoitzean toki-entitateak eskaintzen dituen prestazio eta ondasunak eta, halaber, horien kostua -bai orokorra eta bai banakakoa ere.

b) Zerbitzuen gutunak edo agiri baliokideak argitaratzea eta, hala egokituz gero, zerbitzuen kalitatea ziurtatzen edo egiaztatzen duten prozesuak.

d) Halaber, ondorengo zerbitzuen zorroari buruzko informazio erantsia, laburtua eta argia jasoko da:

- 1.- Mantentze-lanak eta bestelako lanak.
- 2.- Segurtasun publikoa eta babes zibila.
- 3.- Hondakinen bilketa eta tratamendua.
- 4.- Uraren kudeaketa.



- 5.- Bide-garbiketa.
- 6.- Jarduera ekonomikoak eta baimenak.
- 7.- Hirigintza eta ingurumena.
- 8.- Kultura eta kirolak.
- 9.- Gizarte-zerbitzuak.
- 10.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna.

8. Artikulua. Kudeaketa publikoari buruzko informazioa.

Alor honetan dituzten eskubideak hauek izango dira:

a) Gauzatzen diren kontratuak publikoak izango dira, eta bertan adierazita egongo dira helburua, iraupena, lehiaketaren zenbatekoa eta esleipenarena, hori gauzatzeko erabilitako prozedura, argitara emateko erabili diren baliabideak, prozeduran parte hartu duten lehiatzaileen kopurua eta esleipendunaren nortasuna, baita kontratuaren aldaketak eta luzapenak ere. Kontratuei uko egiteko erabakiak ere publikoak izango dira.

b) Sektore publikoko kontratuen legerian aurreikusitako prozedura bakoitzaren bitartez esleitutako kontratuen ehunekoari buruzko estatistika-datuak, aurrekontu-bolumenaren arabera, ezagutzea.

c) Hala egokitzuz gero, kontratistek beren betebeharrak ez betetzeagatik ezarritako zigorrak ezagutzea.

d) Ebatzitako kontratuen zerrenda. Berariaz argitara emango dira kontratuei uko egiten dieten erabakiak.

e) Kontratu txikiak hiru hilean behin argitaratuko dira eranskin gisa, eta argitaratzen direnetik 12 hilabetez gutxienez horien berri jasota geratuko da.

f) Izenpetutako hitzarmenen zerrenda, sinatu duten alderdiak berariaz aipatuz, eta halaber, horien xedea, iraupena eta aldaketak, baita prestazioak eta, hala egokitzuz gero, horietatik ondorioztatzen diren betekizun ekonomikoak ere.



g) Izenpetzen diren kudeaketa-aginduak ezagutzea, horien helburua, aurrekontuak, iraupena, betebeharrak ekonomikoak eta azpikontratazioak ere adieraziz, eta berriaz aipatuko dira pertsona esleipendunak, esleipenerako oinarri gisa erabilitako prozedura eta horren zenbatekoa.

h) Emandako diru-laguntzak eta laguntza publikoak ezagutzea, horien zenbatekoa, helburu edo xedea eta onuradunak adieraziz.

9. Artikulua. Toki-erakundeen zerbitzura dauden langileei buruzko informazioa.

Alor honetan dituzten eskubideak hauek izango dira:

a) Enplegu-eskaintza publikoen berri eta horien gauzatze-mailaren berri jasotzea, baita funtzionarioen edo lan-kontratupekoen hautapen-prozesu guztiena ere, deialdiak eta geroko ekintza guztiak ere barne, izendapena egiten den arte edo dagokion kontratua izenpetu arte.

b) Toki-administrazioek edo beste era bateko entitateek eskaintako ikastaroak edo prestakuntza-programak ezagutzea.

c) Ordezkaritza sindikaleko organoak osatzen dituzten kideak eta liberatuta dauden pertsonen kopurua ezagutzea, bakoitzak duen ordu-kreditua berriaz aipatuz.

d) Lanpostuen zerrendak ezagutzea, eta bertan, kategoriaren arabera izango duten ordainsari indibidualizatuaz gain, antolamendu-baliabide horren elementurik azpimarragarrienak bilduko dituen laburpen-taula bat jasoko dute.

e) Bateragarritasun-adierazpenen alorrean eskumena duen organoaren ebazpenak ezagutzea.

10. Artikulua. Abian diren prozedurei buruz informazioa eskuratzeko eskubidea.

Herritarrek eskubidea dute, aldeztatik arrazoitu beharrik ez duten eskaera bat eginez gero, interesatu gisa ageri diren prozeduren izapideen egoera ezagutzeko eta horietan jasotzen diren agirien kopiak eskuratzeko,



baita egin nahi diren jardueretarako eskatutako baldintzen inguruan informazioa eta orientabideak jasotzeko ere.

Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedapen orokorrak egiteko aurreikusten den prozeduraren barruan, herri-entitateei entzuteko aukera emango zaie, baldin eta beren gizarte-helburua edo xedea erregulatutakoarekin zuzenean loturik badago.

11. Artikulua. Aurrekontuen egoera ezagutzeko Eskubidea.

Alor honetan dituzten eskubideak hauek izango dira:

a) Toki-entitatearen aurrekontuak osorik eta eguneratuta, modu erraz, argi eta grafiko batean, argitaratzea, kontu-sail nagusiak deskribatuz eta beharrezko informazioa jasoz, gauzatze-maila eta ekitaldian zehar onetsitako aurrekontu-aldaketak ezagutzeko aukera emango duena.

b) Argitaratu beharreko urteko kontuak eta horien gainean kanpo-kontrolako organoek egiten dituzten kontu-ikuskaritzaren txostenak nahiz fiskalizazio-txostenak ezagutzea.

c) Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko helburuak betetzearekin loturiko informazioa eskuratu ahal izatea.

d) Diru-sarrerei eta gastuei buruzko oinarrizko informazioa ezagutzea.

e) Hornitzaileei ordaintzeko orduan izandako berandutzearekin loturiko legeria betetzeko epeak ezagutzea.

f) Bere jabetzakoak diren ondare-ondasun higiezinaren zerrenda ezagutzea, edo zeinen gainean duen eskubide errealean bat eta, hala egokituz gero, zein entitateri lagata dauden.

g) Toki-entitateko ordezkari politikoek eta aldi baterako langileek eta zuzendaritzakoek kontzeptu guztiengatik urtero jasotzen dituzten ordainsariak ezagutzea, baita kargu edo betekizun hori utzi ondoren jasoko dituzten kalte-ordainak ere, hala egokituz gero.



12. Artikulua. Udalaren jardueri eta erabakiei buruzko informazioa ezagutaraztea.

1.- Udalak eskura dituen baliabide desberdinak erabiliko ditu udal-jardueri buruzko informazioa herritarrei helarazteko, eta ahalik eta zabalkunderik handiena emango die hiri osoan. Egiten diren herri-partaidetzarako ekintza eta prozesuen berri ere emango du. Bereziki, organo eskudunak onetsitako hirigintza-planak eta proiektu estrategikoak, jendaurreko informazio-epeak eta jardueren agenda ezagutarazten ahaleginduko dira.

2.- Udal-jardueri buruzko informazioan balioespenik ez egiten ahaleginduko dira, eta dauden alternatiba desberdinei buruzko informazio xehakatu, dagokion erabakia hartzeko izan dituzten arrazoi objektiboak eta zein izapide-egoeran aurkitzen den adieraziko dute batik bat.

3.- Herritar guztien informaziorako, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak eta Gobernuak egiten dituzten bilkuren eguneko gai-zerrenda eta deialdiak udalaren webguneko iragarki-taularen bitartez eta aldizkariaren bitartez argitaratuko dira nagusiki.

4.- Ekitaldiak eta erabakiak jakinarazi eta argitaratzeari buruz indarrean dagoen araudiak xedatutakoa baztertu gabe, Udalbatzarraren eta Gobernu-Batzordearen erabakiak egoki deritzoten bitartekoen bidez argitaratuko ditu Udalak, esate baterako, Udalaren webguneko iragarki-taularen bidez.

2. Atala. Informaziorako udal-antolamendua.

13. Artikulua. Herritarren arretarako bulegoa.

1.- Herritarren arretarako zerbitzuak koordinatu, bultzatu eta koherentziaz osatuko du Udalak duen informazio-politika.



2.- Informazio-eskaerak jaso eta bideratuko ditu, Udalari eta bere funtzionamenduari buruzko informazioa eskainiko du eta udalerrian egiten diren jardueren berri emango du.

3.- Zerbitzuak eskaini beharreko arreta hori, dena den, presentziala, telefono bidezkoa eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien bidezkoa izango da. Horri begira, beharrezkoak diren giza baliabideak eta bitarteko material eta teknologikoak eskuratuko ditu, eta eskaintzen duen zerbitzua bizkorra eta eraginkorra izateko moduan antolatuko da.

4.- Zerbitzu honek eskaerak, kexak, iradokizunak, ekimenak eta proposamenak erregistratzeko eta bideratzeko lanak burutuko ditu.

5.- Halaber, beste Herri Administrazio batzuek dituzten zerbitzu eta eskumenei buruzko informazioa eskainiko du Zerbitzuak.

6.- Udalaren esku dauden izaera pertsonaleko datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta baliogabetzeko eskubidea gauzatu ahal izatea bermatuko die herritarrei.

14. Artikulua. Eskaerak ebaztea.

1.- Eskariari buruzko ebazpena, hura jasotzen denetik hilabete bateko gehieneko epearen barruan jakinarazi beharko da. Epe hori beste hilabete batez luzatu ahal izango da, baldin eta eskatutako informazioaren bolumenak edo zailtasunak hala eskatzen badute. Kasu horretan, lehenengo hamar egunen barruan epe hori luzatu izana eta hori justifikatzen duen arrazoia jakinarazi beharko zaio eskatzaileari.

2.- Eskaera zuzentzen zaion pertsonaren esku ez dagoen informazio bati buruzkoa baldin bada eskaera hori, hark eskumena duenari igorriko dio, ezagutzen baldin badu, eta halaxe jakinaraziko dio eskatzaileari.



3.- Izaera orokorrez, hura onesten duen ebazpenaren jakinarazpenarekin batera, eskatutako informazioa eman edo informazio hori berehala eskuratu ahal izango dela adierazi beharko da, legeak aurreikusten duen eta informazioa eskuratzea atzeratzen duen arrazoiren bat egon ezean, edo informazioaren ezaugarriek edo hori eskuratzeko modu edo formatuak berehalakotasun hori eragotzi ezean. Informazioa berehala eskuratzen ez bada, ebazpenak berariaz jasoko du noiz eta nola eskuratuko den informazioa, eta edonola ere, ez da inola ere hamar egunetik gorako epe batean izango.

4.- Ematen den ebazpenaren aurka erreklamazioa jarri ahal izango da, oinarritzko araudian aurreikusten den eran, eta hala egokituz gero, dagokion administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere bai.

15. Artikulua. Udal-hedabideak.

Udalak udal-hedabideak sustatuko ditu eta pertsonak horiek erabil ditzatela erraztuko du, betiere aniztasuna errespetatuz.

Udal-hedabideak erabili daitezela errazteari begira, bide eta epe batzuk finkatuko dira, hedabideak dituen ezaugarrien eta adierazitako interesaren arabera. Era berean, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak eskainiko dira, horiek ahalik eta gehien erabili eta garatu daitezela bultzatzearen.

16. Artikulua. Udalaren webgunea.

Udal-administrazioak informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabil daitezela sustatuko du udalaren webgunea garatuz, honako helburu hauek lortzeko:



- a) Udal-administrazioarekin egin beharreko kudeaketak ahalik gehiena errazteko, administrazio elektronikoko zerbitzuak ezarriz.
- b) Udal-gobernuaren administrazio-jarduerari buruzko eta udalaren erakunde-jarduerari buruzko informazio eguneratua eskaintzeko.
- c) Administrazioaren eta herritarren artean komunikazio-kanal elkarreragile bat finkatzeko.

Halaber, Udalak sinadura elektronikoa erabili dadila sustatuko du indarreko araudiarekin bat etorritz, administrazioa modernizatzeko eta pixkanaka baina etengabe herritarrengana hurbiltzeko prozesuaren barruan.

II. KAPITULUA. PARTE-HARTZE AKTIBOA.

1. Atala. Parte Hartzeko Eskubidea.

17. Artikulua. Parte hartzeko eskubidearen edukia.

1.- Herritarren partaidetza, hain zuzen ere, ordezkartza bidezko demokrazian sakontzeko bide bat eta osagarri bat da. Parte hartze horrek ez du inola ere gutxituko ordezkartza-organoek berez duten erabakitze-ahalmena.

2.- Pertsona guztiek eskubidea dute politika publikoetan eta udalaren eskumeneko bizitza publikoko gaietan norbanako gisa nahiz elkarte gisa esku hartzeko, arau honetan ezarritako baldintzetan. Parte hartze hori berdintasunezko baldintzetan gauzatuko dela bermatuko du Udalak, beren genero, bizitza-ziklo, kultura nahiz nortasun arloko aniztasun, gizarte edo ekonomia mailako egoera, gaitasun edo ezagutzengatik ordezkartza gutxien duten kolektiboek parte har dezatela sustatzeko neurri bereziak hartuz.



3.- Udalak kapitulu honetan erregulatzen diren partaidetza-eskubideak benetan gauzatu daitezela sustatuko du, horiek erabat gauzatzeko dauden oztopoak ezabatuz.

4.- Udaleko gai publikoetan parte hartzeko eskubidearen barruan ondorengo eskubideak sartzen dira:

- Eskaera egiteko eskubidea.
- Ekimena abiarazteko eskubidea.
- Kexak, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko eskubidea.
- Entzunaldi publikorako eskubidea.
- Herri-kontsultarako eskubidea.
- Kide anitzeko organoen bilkuretan galdera-erreguen txandarakoa.
- Kontseiluetan parte hartzeko eskubidea.

5.- Hurrengo artikuluetan ezarritakoa alde batera utzirik, herritarren partaidetza hori arau honetan jasotako baldintzetan gauzatu ahal izango dute ondorengo pertsona, erakunde edo elkarteek:

a) Udalerrian erroldatuta dauden pertsonak, legeak euskal herritarraren nortasun politikoa edukitzea eta, beraz, hauteskunde-eroldan inskribatuta egotea eskatzen duen kasuetan izan ezik.

b) Udalerrian aldi baterako edo behin betirako bizi diren pertsonak, legean adierazten diren baldintzetan.

c) Adinez 18 urtetik beherakoak eta 16 urtetik gorakoak diren pertsonak, arau honetan ezarritako baldintzetan bakar-bakarrik.

d) Gobernu maila bakoitzean herri-partaidetzarako erakundeen erregistroan inskribatuta dauden eta irabazi-asmorik ez duten entitate, elkarte, gizarte-erakunde edo taldeak.

e) Ordenamendu juridikoarekin bat etorritik, nortasun juridiko bat atxikia duten elkarte, fundazio, sindikatu, enpresa-elkarte, elkargo profesional, eskubide publikoko korporazio edo beste era bateko entitateak.



f) Aldi baterako eratu diren baina nortasun juridikorik ez duten plataforma, foro edo herritarren sareak, betiere legean jasotako baldintzak betetzen badituzte. Plataforma, foro edo herritarren sare horiek birtualak ere izan daitezke.

18. Artikulua. Eskaera-eskubidea.

1.- Pertsona guztiek, naturalak izan nahiz juridikoak izan, eskaerak edo eskabideak egin ahal izango dizkiote Udal-gobernuari, bakarka edo taldeka, Konstituzioko 29. artikuluaekin eta azaroaren 12ko 4/2001 Lege Organikoarekin bat etorriz, udal-eskumeneko edozein gai edo auziri buruz, bai eskatzaileari bakarrik dagozkion gaietan eta baita interes kolektibo edo orokorra dutenetan ere.

2.- Eskaera idatziz aurkeztu beharko da, eta zuzenbidean baliagarria den edozein bide erabili ahal izango da, eskatzailearen nortasuna eta eskaeraren xedea behar den eran egiaztatzeko modua ematen badu, Udalak gehitu ditzakeen baliabide telematikoak ere barne. Horretarako, argi adierazi beharko dira izena, abizenak, jakinarazpenetarako helbidea eta bitartekoa, nortasun-agiri nazionala edo pasaporteak, baita eskaeraren helburua ere.

3.- Eskabide kolektiboak eginez gero, aurreko baldintza horiek betetzeaz gain, eskatzaile guztiek sinatu beharko dute, eta sinadura horren ondoan bakoitzaren izen-abizenak agertuko dira. Pertsona horiek beren datuen konfidentzialtasuna eskatu ahal izango dute.

4.- Udalak eskaera jaso izanaren egiaztageria igorriko du eta halaxe jakinaraziko dio interesatuari, 10 eguneko gehieneko epearen barruan. Idatzi horrek ez baditu betetzen artikulua honetako 2. apartatua ezarritako baldintzak, pertsona interesatuari 15 eguneko epea emango zaio hautemandako akatsak zuzendu ditzan, eta ohartaraziko zaio, horrela egiten ez badu, eskaera horri uko egin diola ulertuko dela, eta artxibatu egingo dela jakinaraziko zaio, arrazoia adieraziz.



5.- Eskaerak ez dira onartuko hurrengo kasu hauetan:

- a) Horien xedea Lasarte-Oriako Udalak dituen eskumenetatik kanpo geratzen denean.
- b) Horri buruzko ebazpena titulu berezi batek babestu behar duenean eta administrazio edo judizio arloko prozedura baten xede izan behar duenean.
- c) Eskararen xedearen inguruan prozeduraren bat jada abian dagoenean, horri buruzko ebazpen edo erabaki irmorik hartu ez den bitartean.

Hauetako edozein arrazoirengatik onartzen ez bada ebazpen arrazoitu bat emango da 45 eguneko epearen barruan, eskaera aurkeztu den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

6.- Eskaera hori izapidetzeko onartzen baldin bada, legeak aurreikusitako epeen barruan erantzun beharko dio Udalak, eta bidezko baldin bada, horretarako hartu diren neurriak edo egitea aurreikusten diren jarduerak jakinarazi beharko ditu.

19. Artikulua. Kexak, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko eskubidea.

1.- Arestian aipatutako pertsona guztiek, naturalak izan nahiz juridikoak izan, kexak eta erreklamazioak aurkezteko eta iradokizunak egiteko eskubidea izango dute udal-zerbitzu publikoen funtzionamenduaren inguruan.

2.- Eskubide hori Udal-Erregistroaren bitartez eta informazio-bulegoen bitartez gauzatuko da, baita partaidetza-postontzien eta udalaren webgunearen bitartez ere. Eskubide horiek erabiltzen dituzten pertsonak proposatutako gaiei buruzko erantzun idatzi eta arrazoitu bat jaso behar dute, hilabeteko gehieneko epearen barruan.



3.- Alkatetzak kexak, erreklamazioak eta iradokizunak jaso eta dagokien organora edo zerbitzura bideratuko ditu, bertan azter ditzaten.

4.- Iradokizunen postontziak astero hustuko dira, eta jasotzen diren iradokizunei zuzenean sarrera emango zaie Erregistroan asteko lehen lanegunear.

5.- Lau hilabetez behin, Lasarte-Oriako Udalak txosten bat egingo du eskaerei eman zaien erantzun-maila aztertuz.

20. Artikulua. Ekimena abiarazteko eskubidea.

1.- Erabakiak hartzeko ekimena: Udal-hauteskundeetan sufragio aktiborako eskubidea duten herritarrek udal-eskumenekoak diren gaietan erabakiak hartzeko edo jarduerak proposatzeko herri-ekimena gauzatu ahal izango dute.

Udalerriko herritarren ehuneko hamarrek gutxienez izenpetu behar dute ekimen hori, eta Udalbatzarrean eztabaidatu eta horri buruzko botazioa egin beharko da. Horretarako, aldez aurretik, Idazkari Nagusiak horren legezkotasunari buruzko txostena egin beharko du. Ekimen hori Udalaren eduki ekonomikoarekin loturiko eskubide eta betebeharrei buruzkoa denean, Kontu-hartzailetzako titularrak egin beharko du txosten hori. Era berean, eragindako jarduera-eremuari dagokion udal-arloko zerbitzu teknikoek horri buruzko txostena egin beharko dute aldez aurretik. Txosten horiek hogeita hamar eguneko gehieneko epean prestatuko dira.

Proposatutako ekimena Mozio gisa izapidetzen baldin bada, hori onesteak izango dituen ondorioak Lasarte-Oriako Gobernuarentzako agindu politiko batetik ondorioztatzen direnak izango dira.

2.- Araugintzako herri-ekimena: Udal-hauteskundeetan sufragio aktiborako eskubidea duten herritarrek araugintzako herri-ekimena gauzatu ahal izango dute, udalaren eskumeneko araudi-proiektuak aurkeztuz, baina



horretarako, udalerriko biztanleen ehuneko hamarrek gutxienez izenpetuak egon behar dute.

Herri-ekimen horiek arau gisa izapidetuko dira, baina edonola ere, jendaurreko informazio-aldian jasotako alegazioekin loturik herri-ekimenaren ordezkariak egindako txostena jasoko da.

21. Artikulua. Herri-kontsulta.

1.- Udalaren eskumeneko eta udal-izaerako gaiak buruz kontsultak egin ahal izango zaizkie herritarrei, baldin eta bizilagunen komunitatearen interesetarako garrantzi berezikoak badira, toki-araubideko oinarrizko legerian debekatuta dauden eremuei buruzkoak izan ezik.

2.- Arau honetan erregulatutako ekimenez herri-kontsultarako proposamen bat gehitu dezakete.

3.- Herri-kontsulta egin ahal izateko, Udalbatzarrak gehiengo absolutu bidez erabaki beharko du, udalerako hauteskundeetan sufragio aktiborako eskubidea duten herritarren %10ek eskatu ondoren, eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 71. artikuluan edo hura ordezkatzeko duen arauan xedatutakoaren arabera tramitatu beharko du.

4.- Salbuespen gisa, kontsulta-prozesuaren xede den gaiaren arabera, udalerrian bizi diren atzerritarrek eta bozketa hasten den egunean gutxienez 16 urte beteak dituzten adingabeek parte hartu ahal izango dute herri-kontsulta horietan. Kasu honetan, hautesleen errolda biztanleen udal-erroldaren bidez osatuko da, eta Udaleko Idazkaritzaren eskumena izango da egokitzapen-lan hori egitea.



5.- Kontsultak lotesleak izango dira, erabat edo zati batean hori egitea eragotziko duen lege-arauren bat egon ezean.

22. Artikulua. Erreferendumezkoak ez diren herri-kontsultak.

1.- 16 urtetik gorako adina duten herritarrei, udalerrian erroldatuta egonez gero, erreferendumezkoak ez diren kontsultak egin ahal izango dizkiete, izaera loteslerik gabe, eragiten dieten eta udal-eskumenekoak diren interes publikoko eta udal-izaerako gaiei buruz.

2.- Pertsonen duintasunari eta beren funtsezko eskubideei eragin diezaieketen edo horiek ezbaian jar ditzaketan gaien inguruan ezingo da herri-kontsultarik egin, ezta Toki Ogasuneko diru-sarrerara publikoei eragiten dieten gaiei buruz edota Udalaren finantza-iraunkortasunari eragiten dieten gaiei buruz ere.

3.- Erreferendumezkoak ez diren herri-kontsultak erakundeen ekimenez edo herritarren ekimenez egin ahal izango dira, horretarako ezartzen diren modu eta baldintzetan. Udalak bermatu egingo du herri-kontsulten prozesu horiek inpartzialtasunez, gardentasunez eta berdintasunez garatuko direla proposamen desberdinak azaltzeko garaian. Halaber, herritarren iritzira jarriko den edo jarriko diren galderak argi eta labur adieraziak egongo direla bermatuko du.

4.- Herritarrek Parte Hartzeko arau hau garatuz, bai kontsultak sustatzeko eta garatzeko prozedura eta bai horien berme-sistema ere hori garatuko duen arau berezi batek erregulatuko ditu, eta Udalbatzarrak onetsiko du arau hori.

23. Artikulua. Sektorre edo lurralde-eremu mugatu bateko kontsultak.

1.- Herritarren parte bati bakarrik eragiten dioten kontsulta bereziak egin ahal izango ditu udalak, kontsulta horien gaiak bere barne hartuko duen lurralde-eremuaren edo dagokion gai sektorialaren arabera.



2.- Kontsulta sektorialtzat hartuko da arazo edo auzi jakin baten inguruan egiten dena eta herritarren parte bati bakarrik edo udalerrian bizi direnen parte bati bakarrik eragiten diena.

3.- Lurralde-kontsultatzat hartuko da, berriz, udalerrriaren zati batean bakarrik gauzatzen dena, auzo bat izan, toki-entitate txiki bat izan edo udal-barruti bat izan.

4.- Kontsulta hauen deialdia egitea alkatearen eskumena izango da, udalbatzarrak gehiengo absolutu bidez onetsi ondoren.

5.- Kontsulta hauetan, horien xede den gaiaren arabera, atzerritarrek eta udalerrian erroldatuta dauden 16 urtetik gorako pertsonak parte hartu ahal izango dute.

6.- Nolanahi ere, prozesu horietan aniztasun politikoaren eta inpartzialtasunaren printzipioak errespetatzen direla bermatu beharko da, eta halaber, berdintasunezko baldintzetan bozkatzeko eskubideak erabat babestuko direla. Alkatetzaren titulartasuna duen pertsonaren eskumena izango da printzipio horiek erabat errespetatzen direla zaintzea eta prozesu horiek egoki gauzatuko direla bermatuko duten baliabide guztiak jartzea.

7.- Udaleko Idazkaritza izango da prozesu horiek eraginkortasunez antolatzeko organo eskuduna, eta edonola ere, lortzen diren emaitzen fede emango du.

24. Artikulua. Garrantzi berezia duten politika publikoei edo erabaki publikoei buruzko izaera lokaleko herri-kontsulta irekiak.

1.- Kontsulta hauek bozketa bidez egingo dira, nahiz eta bozen bilketa hurrenez hurreneko edo txandakako hamabost egun arte luzatu ahal izango den gehienez, batzarraren erabaki arrazoituarekin bat etorri gero.



2.- Kontsulta hauetan, horien xede den gaiaren arabera, atzerritarrek eta udalerrian erroldatuta dauden 16 urtetik gorako pertsonak parte hartu ahal izango dute.

3.- Kontsultaren xede den gaia udalaren eskumeneko politika publiko, erabaki edo gaietara bakarrik mugatuko da. Diru-sarrera publikoekin loturiko alderdien inguruko kontsultarik ezingo da egin, udal-zergekin loturik dauden eta udal-eskumenekoak diren gaien ingurukoak izan ezean.

4.- Ordenantzak eta araudiak onesteko prozesuen jendaurreko informazioaldietan kontsulta horiek egitea proposatu ahal izango da.

5.- Dagozkion udal-ordenantza edo araudien bitartez, edo horrelakorik ez badago, udalbatzarrak hala erabakita, bozketari eta botoen zenbaketari eta prozesuaren kontrolari eragiten dioten prozedura-alderdiak finkatu ahal izango dira, baita izaera teknikoa duten beste batzuk ere.

6.- Kontsulten emaitzek ez dute inola ere izaera loteslerik izango udal-gobernuarentzat. Dena den, amaierako erabakia kontsulta irekiaren emaitzetatik urruntzen baldin bada, berariaz arrazoitu beharko dira erabaki hori justifikatuko duten arrazoiak.

25. Artikulua. Entzunaldi publikorako eskubidea.

1.- Udal-arduradunek, bereziki garrantzitsuak diren jardueren edo jarduketa-programen berri emateko eta herritarren proposamenak jasotzeko egun jakin batean herritarrekin batera egiten duten topaketari esaten zaio entzunaldi publikoa.

2.- Alkatetzak egin ohi du deialdia, bere ekimenez edo Udalbatza osatzen duen kide kopuruaren gehiengo absolutuak hala eskatuta. Entzunaldia egiteko eskatzen duten pertsona, entitate eta elkarteek idatzi arrazoitu bat aurkeztuko dute Udal-Erregistroan, eta aztertu beharreko gaiari buruzko memoria bat gehituko dute, bildutako sinadurekin eta hori sinatu duten pertsonen identifikazioarekin.



3.- Agiriak jaso ondoren, Alkateak Entzunaldi Publikorako deialdia egingo du eta hori hurrengo 30 egunetan egin beharko da. Deialdiaren eta entzunaldiaren artean 15 egun naturaleko tarte egongo da.

4.- Bilkurek honako funtzionamendua izango dute:

- a) Aztertu beharreko gaiari buruzko azalpena egingo da.
- b) Udal-arduradun politikoak esku hartuko du eta bere iritzia azalduko du.
- c) Bertaratuek ere esku hartuko dute, bakoitzak bost minutuz gehienez. Hitza eskatu duen pertsona-kopurua ikusi eta saio osoa gehienez ere bi ordukoa izango dela kontuan izanik, denbora hori are gehiago murriztu ahal izango da.
- d) Arduradun politikoaren erantzuna, hala badagokio.
- e) Ondorioak, halakorik egonez gero.

26. Artikulua. Herritarrentzako Bulego Mugikorra.

1.- Herritarrentzako Bulego Mugikorra udaleko arduradunek egun jakin batean auzoetan herritarrekin egiten duten elkarganatzea da, bereziki garrantzitsuak diren jardueren edo jarduketa-programen berri emateko eta auzoaren beraren proposamenak jasotzeko egiten dena.

2.- Alkateak egin ohi du deialdia, bere ekimenez edo Udalbatza osatzen duen kideen kopuruaren gehiengo absolutuak hala eskatuta.

3.- Herritarrentzako Bulego Mugikorraren deialdia urtean behin egin beharko da udalerriko auzoetako bakoitzean.

4.- Agiriak jasotakoan, Alkateak Herritarrentzako Bulego Mugikorraren deialdia egingo du, eta hura hurrengo 30 egunetan egin beharko da. Deialdiaren eta bileraren artean 15 egun naturaleko tarte egongo da.



27. Artikulua. Herritarren galdera-erreguen txanda kide anitzeko organoen bilkuretan.

Lasarte-Oriako Udal-Araudi Organikoak erregulatutako moduan, Batzarraren eguneko gai-zerrenda amaitu ondoren, galdera-eskarien txanda irekiko da herritarrek parte har dezaten.

28. Artikulua. Kontseiluetan parte hartzeko eskubidea.

Pertsona fisikoek eta juridikoek eskubidea izango dute Kontseiluen organoetan parte hartzeko, Kontseilu horietako bakoitzaren erregulazioan finkatzen den proportzio eta ordezkartzarekin.

29. Artikulua. Bilera egiteko eskubidea.

1.- Bilera egiteko eskubidea gauzatze aldera, Udalak horretarako destinatzen dituen lokalak, ekipamenduak eta gune publikoak erabiltzeko eskubidea dute Lasarte-Oriako pertsona eta elkarte guztiek, eta horretarako betebeharrak bakarrik lekuaren ezaugarriei buruzko obligazioak eta ordenantza munizipalaren ezarritakoak betetzea izango da.

2.- Espezifikoki, Udalak erabilera horietarako beharrezkoak diren ekipamenduak jarriko ditu, behar bezala prestatuak. Ekipamendu horien erabilera espezifikatu egin beharko da, hartara elkarteek eta herritarrek horiek erabiltzeko eta horietara iristeko modurik egokiena izan dezaten.

30. Artikulua. Parte hartzeko eskubidearen sustapen efektiboa.

1.- Udalak modu efektiboan sustatuko du kapitulu honetan arautzen diren parte hartzeko eskubideak baliatzea, horiek osorik baliatzea eragozten duten oztopo guztiak ezabatuz.



2.- Legeek definitutako eremuaren barruan, Udalak bultzatu egingo du interlokuzio sozialerako egoera ahulenean dauden pertsona eta kolektiboen elkartegintza, bai eta emigranteen partaidetza ere.

31. Artikulua. Elkarrekin informazioa jasotzeko duten eskubidea.

Arau honen 3. artikuluan aitortzen den informazio munizipala jasotzeko eskubide orokorra salbu utzita, udalerriko elkarte eta kolektiboek, gainera, honako eskubide hauek ere izango dituzte:

- a) Udalari jakinarazitako posta elektronikoko helbidean Lasarte-Oriako Udalaren osoko bilkuren deialdiak jasotzeko eskubidea.
- b) Udalak agerian jartzen eta zabaltzen dituen publikazio eta informazio munizipal guztiak elkarrekin helbidean jasotzeko eskubidea, betiere elkarrekin interesgarriak badira bere helburuaren arabera.
- c) Bere jardun-eremuan sar daitezkeen ekimen eta proiektu munizipalen gaineko informazioa jasotzeko eskubidea.

2. Atala. Parte hartzea sustatzeko tresnak.

32. Artikulua. Partaidetza-eredua.

Partaidetzarako mekanismoak eta bideak osotasun integratu baten modura orokorrean ikusi ahal izatea ahalbidetzen digun elementu bat da udalaren partaidetza-eredua. Lasarte-Oriako Udalak garatzen duen eredua hainbat tresna eta baliabidek osatua dago, eta kasu bakoitzean eta proiektuak dituen helburuen arabera egokiena dena erabiltzen da:

- a) Partaidetzarako organo, espazio eta baliabide egonkorak, erregulariki funtzionatzen dutenak.
- b) Aldi baterako izaera duten prozesu zehatzak, hasiera eta amaiera zehatzak dituzten proiektu jakin batzuekin lotuak.



- c) Gai berezi batzuen inguruko kontsultak eta parte hartzeko gune zehatzak.
- d) Antolatu gabeko harreman eta komunikazioak.

33. Artikulua. Udal-ordezkariekin hitz egin ahal izatea.

Bai alkatea, bai udal-gobernuko kideak eta bai udal-taldeak ere, dituzten giza baliabideen eta bitarteko materialen neurrian, egiten zaizkien hitzordu-eskaerak eta arreta-eskaerak betetzen ahaleginduko dira. Horretarako, beharrezko prozedurak antolatuko dira eta behar bezala ezagutaraziko dira.

34. Artikulua. Partaidetzarako Udal-Agenda.

Bereziki herritarren partaidetza sustatuko duten jarduerak jasoko ditu Partaidetzarako Udal-Agendak. Udal-gobernuaren iritziz herritarren inplikazioa izan behar duten jarduketa guztiek osatuko dute Agenda hori. Kontseilu desberdinetako lan-agenden, prozesu sektorialen, aurrekontu partizipatiboen eta unean uneko proiektu jakinen inguruko informazioa zentralizatuko du baliabide horrek.

35. Artikulua. Parte hartzeko metodologiak erabiltzea.

Udalak partaidetza-prozesuak egitea sustatuko du, udal-jarduerak prestatu, gauzatu eta balioesteko faseetan ahalik eta herritar gehienek parte har dezaten. Garrantzi berezia duten proiektuetan eta, bereziki, udal-aurrekontua prestatzeko prozesuan partaidetzarako teknikak eta metodologiak erabiliko ditu.

Partaidetzarako teknika eta metodologia horiek ordena eta koherentzia, berdintasuna eta egiteko modu batzuk eskaini beharko dizkiote proiektuari, proiektu horrek dituen mugak eta aukerak argi eta garbi zehaztuz.



36. Artikulua. Aurrekontu Partizipatiboak.

1.- Udal-aurrekontuan jaso beharreko lehentasunei eta konfigurazioari buruz gogoeta eta eztabaida egiteko eta erabakiak adosteko prozesuak egin daitezela bultzatuko dute aurrekontu partizipatiboaren metodologiaren bitartez, gure herriaren premiei eta elkarteak osatzeko eta parte hartzeko dinamikari erantzungo dion eredu propio bat eraikiz.

2.- Diru-sarrera publikoei buruzko erabakiak ezin daitezke izan eztabaida-prozesuen xede.

3.- Aurrekontu alorreko eztabaida-eremuen inguruan egiten den eztabaida-prozesuak ez dio entitate lokalari eragingo defizit-helburuak, zor publikoa eta aurreikusitako gastuen araua betetzeko orduan, ezta berankortasunari buruzko legerian hornitzaileei ordaintzeko aurreikusten den batez besteko epean ere.

37. Artikulua. Udalerriaren Egoerari buruzko Debatea.

1.- Udalerriko gai garrantzitsuei buruzko debatea bultzatuko da Udalerriaren Egoerari buruzko Debatearen bitartez. Debate hori udalbatzar batean egingo da, eta haren deialdia ohiz kanpoko udalbatzar batena bezalaxe egingo da.

2.- Esku-hartzeak alkateak edo lehendakariak aginduko ditu, hurrengo erregela hauen arabera:

- a) Alkateak edo lehendakariak aldeztu aurretik baimena ematen duenean bakarrik hartu ahalko da hitza.
- b) Alkate-lehendakariak hasiko du debatea, hogeita hamar minutuko azalpen batekin.
- c) Horren ondoren, lehen txanda bat izango dute udaleko talde politikoek. Oro har, lehen esku-hartzeak ez dira hamabost minututik gorakoak izango, nahiz eta, Bozaramaileen Batzordeak hala erabakitzen badu, denbora-tarte luzeagoa ezarri ahalko den esku-hartze bakoitzerako, baina denbora-tarte horrek berdina izan



behar du talde guztientzat. Adskribatu gabeko zinegotzirik baldin bada, haren denbora-tartea erdira murriztuko da.

- d) Debateari ekin aurretik, alkateak adskribatu gabeko zinegotziei eta udaleko talde politikoei galdetuko die ea esku hartu nahi duten. Nahi duten zinegotziek edo taldeek esku hartzeko ordena hurrengo hau izango da: lehenik, adskribatu gabeko zinegotziek hartuko dute hitza, alkateak adierazten duen ordenaren arabera; gero, udaleko talde politikoei hartuko dute, beren hautagai-zerrendak erdietsi duen boto-kopuruaren arabera, txikienetik handienera.
- e) Behin zinegotzi batek bere esku-hartzea hasitakoan, ezingo du inork eten, alkateak izan ezik, baina betiere denbora ahitu duela ohartarazteko, gai horretara muga dadin edo portaera alda dezan ohartarazteko edota hitza kentzeko, eta hori bidezkoa izango da ezarritako denbora-tartea igarotakoan eta amaitu dezala abisatu ondoren.
- f) Alkateak hogeita hamar minutuko txanda batean erantzungo die udaleko taldeen esku-hartzei.
- g) Talderen batek edo adskribatu gabeko zinegotziren batek eskatzen baldin badu, bigarren txanda bat zabalduko da. Bigarren esku-hartzeak ez dira bost minututik gorakoak izango. Denbora-tarte hori amaitutakoan, alkateak hamabost minutuko txanda batean erantzun ahalko du.
- h) Ez da onartuko etenadirik, alkateak portaeraz ohartarazteko edo debaterako gaira mugatzeko egindakoak izan ezik.
- i) Udaleko taldeekin debatea amaitutakoan, edozein herritarrek esku hartzeko txanda bat irekiko da. Horretarako, alkateak bertan dauden pertsonen galdetuko die ea esku hartu nahi duten. Hala egin nahi duenak bere izena eman beharko du.
- j) Zerrendarekin, alkateak hitz egiteko txanda bat irekiko du, eta gehenez ere bost minutukoa izango da esku-hartzaile bakoitzeko.
- k) Publikoaren esku-hartzeak amaitutakoan, alkateak erantzuna emango die, eta hitz egiteko bigarren txanda bat ireki ahalko die lehenago parte hartu dutenei, horiei ondoren erantzungo dielarik.



- l) Baldin eta hitz-eskatzaileen kopuruagatik alkateak egokitzen jotzen badu, esku-hartzeen hurrenez hurrengo txandetan antolatu ahalko du debatea.

3.- Idazkaritzako eta Kontu-hartzaitzako funtzionario arduradunek esku hartu ahalko dute aholkularitza teknikoa ematearren edo kontzeptu batzuk argitzearren, alkateak hala eskatzen dienean. Baldin eta funtzionario horien iritziz eztabaidatutako puntuaren legezkotasunari edo aurrekontuzko ondorioei buruz zalantzarik sor dezakeen gairik baldin badago debate horretan, alkateari hitza eskatu ahalko diote Udalbatzari aholkularitza emateko.

4.- Baldin eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 72. artikulua aipatzen dituen elkarte edo entitateetako batek azalpen bat egin nahi badu Udalbatzarraren aurrean Udalerriaren Egoerari buruzko Debateari dagokionez, bilkurari ekin aurretik eskatu beharko dio alkateari. Haren baimenarekin, hitz egiteko txanda herritarren baldintza beretan baliatu ahalko du.

38. Artikulua. Interesatuta dauden pertsonen zerrendak.

Inskribatutako pertsonak aldizkako informazioa jasoko dute berek hautatzen dituzten eremuetako gai eta proiektu garrantzitsuenen inguruan, eta partaidetza-prozesu jakin batzuetan inplikatu daitezela sustatuko dute.

III. KAPITULUA. PARTE HARTZEKO ESKUBIDEAK BABESTEAK.

39. Artikulua. Herritarren Aholku-Kontseilua.

Udal-administrazioaren aurrean herritarren eskubideak babesteko, Udalak Herritarren Aholku-Kontseilu bat izango du, berriazko erregelamendu baten bitartez arautuko dena. Gobernuko eta udal-administrazioko organo guztiak, eta bereziki Herritarren Arretarako Bulegoa, Kontseilu horri laguntza ematera behartuak egongo dira.



III. TITULUA

GIZARTE ZIBILA SENDOTZEA.

I. KAPITULUA. UDAL-POLITIKAK.

40. Artikulua. Jardunbide egokiak.

Jardunbide egokiak hautematea, ikertzea eta besteekin partekatzea baliabide garrantzitsua da udal-kudeaketa publikorako eta kalitate handiagoko demokrazia bat finkatuko duten politikek aurrera egiteko.

Demokrazia partizipatiboaren jardunbide egokiak ezagutzera ematea sustatuko du Udalak, erakundeen eta herritarren elkarteen bultzadaz.

Herri-partaidetzaren jardunbide egokien oinarria aldeztatik proiektu bat eta plangintza bat egotea da, testuinguruko arazo bati behar bezala erantzungo diona, kontrastatzeko, aztertzeko eta ebaluatzeko aukerarekin.

41. Artikulua. Hiritartasun-balioetan hezteak.

Udalak herritarren artean informazio eta heziketa kanpainak egiteko ekimenak sustatuko ditu, balio demokratikoak eta partaidetza gizarte-balio gisa garatu daitezkeen. Kanpaina horiek abian jartzeko, herritarren elkarteen eta udal-taldearen adostasuna eta lankidetzak bilatuko ditu.



42. Artikulua. Borondatezko lana.

Ekainaren 25eko 17/1998 Legearen 2. artikulua adierazitako baldintzetan sustatuko da borondatezko lana. Udalak, gure udalerriko eta munduko beste herri batzuetako zerbitzuekin, ekitaldiekin eta jarduerekin loturik, herritarrek borondatezko lankidetzaren bidez parte har dezatela sustatuko du.

II. KAPITULUA. ELKARTEGINTZA SUSTATZEA.

43. Artikulua. Elkarte-sarea.

Udalaren iritziz, Lasarte-Oriako elkarte-sarea da udalerriak duen gizarte-kapitalaren elementurik garrantzitsuena.

Hori dela eta, hainbat baliabide publiko erabiliko ditu elkartegintza garatu dadila sustatzeko, pertsonak beren udalerriarekin duten konpromisoaren adierazpen kolektibo gisa ulerturik, balio erantsi bat gehitzen diotelako, interes publiko helburuekin, herritarrei zabalik dauden kalitateko proiektuekin, talde horiek ezagutza sustatu ahal izateko beharrezkoak diren informazio, kontsulta eta partaidetza bideak garatuz, gai publikoak sustatuz eta azalduz erantzukizun partekatuari begira lan egiteko helburuarekin, eta azken batean, udalerria eraldatzeko eta kolektiboki hobetzeko.

Udalak hiriko eta interes publikoko gaietan parte hartzea erraztuko du, eta erakunde demokratiko, eraginkor eta arduratsuak mugiaraziko dituzten baliabideak sustatuko ditu haiek burutzen duten jarduera publikoari begira, sareko lanaren bidez eta haien autonomia errespetatuz sendotu daitezen.

Elkarte-sarearekin harremanak errazteari begira, udalerrian jarduten duten kolektiboen Fitxategi bat sortu eta zainduko du Departamentu eskudunak.



Fitxategi horrek helburu hauek izango ditu:

- a) Udalerrian dagoen elkarte-sarea ezagutzea.
- b) Arau honetan aitortutako eskubideak erabiltzeko erraztasunak ematea, kasu bakoitzean zehazten den moduan.
- c) Udalari eta, oro har, Lasarte-Oriako gizarteari aukera ematea une oro ezagutzeko zein diren kolektiboen ordezkaritzari buruzko daturik garrantzitsuenak, haien jardueren interes-maila edo herri-erabilera.

44. Artikulua. Elkartegintza Sustatzeko Programa.

Elkartegintza herritarrek beren udalerriarekin duten konpromisoaren adierazpen kolektiboetako bat da, eta boluntarioen lana haren adierazpen konprometitu eta eraldatzaileenetako bat.

Herritarren elkarteek eta kolektiboek beren jarduerak berme guztiekin garatu ditzatela erdiesteko, Udalak, Herritarren Partaidetza Zerbitzuaren bitartez, ondoko hauetan lagunduko du:

- a) Elkartegintza-mugimendua kudeatzeko, dinamizatzeko eta sustatzeko heziketa eta gaikuntza programak eskainiko ditu, herritar-mugimenduaren inplikazioarekin antolatuta.
- b) Aholkularitza-zerbitzu bat, partaidetzaren eta kudeaketaren maila desberdinetan.
- c) Elkarreentzako baliabide bereziak antolatuko ditu.



III. KAPITULUA. HERRI-ENTITATEAK.

1. Atala. Herri-entitateen definizioa eta erregistroa.

45. Artikulua. Definizioa.

1.- Arau honen ondorioetarako, herri-entitatetzat hartuko dira elkartzeko izaera duten pertsona juridikoak, irabazi-asmorik ez dutenak, elkartzeko eskubidea erregulatzen duen araubide orokorraren arabera eratuak, kirol klubak eta fundazio pribatuak, beren egoitza edo jarduera nagusia udalerrri honetan dutenak eta helburu nagusitzat, beren Estatutuekin bat etorriz, herritarren interes orokorrak edo sektorialak ordezkatzeari eta sustatzeari eta beren bizi-kalitatea hobetzea dutenak, eta partaidetza-prozesuen garapenean eta udal-interes orokorreko jardueren garapenean Udalarekin elkarlanean aritzeko borondatea agertzen eta konpromisoa bere gain hartzen dutenak.

2.- Aurreko apartatuan deskribatutako pertsona juridikoak, hurrengo artikuluetan erregulatutako Erregistroan inskribatuz gero, herri-entitate bihur daitezke.

46. Artikulua. Herri Entitateen Erregistroa.

1.- Herri Entitateen Erregistroa da aurreko artikuluan adierazitako pertsona juridikoak inskribatu ahal izateko erregistro bakarra. Idazkaritza Nagusiaren mende egongo da eta Kultura sailaren esku egongo da horren kudeaketa. Erregistroko datuek izaera publikoa dute eta edozein pertsona interesatuk kontsultatu ahal izango ditu, indarreko legeriak ezartzen dituen mugak errespetatuz.

2.- Herritarren partaidetzarako entitateek beren jarduera-eremu sektoriala edo sektorialak definitu beharko dituzte, baita lurraldean izango duten hedadura ere, aipatutako Erregistro horretan inskribatzen diren unean.



47. Artikulua. Herritarren partaidetzarako entitateen erregistroaren gaineko erregulazioa.

1.- Herritarren partaidetzarako entitate bat Udalaren, Foru Aldundiaren edo Eusko Jaurlaritzaren erregistro batean lehendik inskribatua baldin badago, udal-mailako eztabaida-prozesu batean parte hartzeko gogoia adierazi ahal izango du dagokion toki-entitateari aldeztu aurretik zuzendutako jakinarazpen baten bidez, betiere jarduera-eremua harenarekin bat baldin badator eta deialdia egin duen entitate lokalak egokitzat jotzen badu dagokion eztabaida partizipatiboari buruzko erabakian.

2.- Herritarren partaidetzarako entitateen udal-erregistroa gai-arloka edo sektoreka antolatuko da, eta herritarren partaidetzarako entitateak beren lehentasunezko jarduera-eremuaren edo jarduera-eremuen arabera atxikiko dira horietara, izaera orokorreko interesak babestuko dituen herritarren partaidetzarako entitatearen izaeraz ere inskribatu daitezkeen arren. Halaber, herritarren partaidetzarako entitateko sustatzaileen datuak jasoko dira, sexuaren aldagaia ere barne. Gaien araberako atxikipen honen helburua antolatzen diren eztabaida-prozesu desberdinetan esku har dezatela erraztea izango da.

3.- Helburu jakin batekin eta aldi baterako izaeraz sortzen diren plataforma, foro eta sareek ez dute erregistroan inskribatu behar. Nolanahi ere, araudi honetan erregulatutako prozesuetan parte hartzeko asmorik badute, aldeztu aurretik Udalari edo aipatutako erregistroari jakinarazi behar diote sustatzaileen nortasuna, egiaztagiri bat eta jakinarazpenetarako helbide bat eskainiz, eta, horrekin batera, helburua edo jarduera-eremua definitu.

48. Artikulua. Herri-partaidetzako prozesuen jarraipena egitea.

1.- Lasarte-Oriako Udalak beharrezko bideak jarriko ditu herritarren partaidetza-prozesuen garapenaren inguruan jarraipen egokia egiteko (horrela, helburu horrekin batzorde berezi bat sortu ahal izango du edo beste batzorde batzuei eska diezaieke eginkizun hori betetzea), eta



partaidetza-prozesu horrek jorratuko duen gai bakoitzaren gaineko ezagutza duten udal-teknikariak gehituko dira horietara.

2.- Lasarte-Oriako Udalak, urtero, urte horretan landu nahi dituen gai publikoetan herritarrek parte har dezatela errazteko jarduerak bilduko dituen programa bat onetsiko du, aurrekontu-ekitaldi horretan xedatutako baliabideak adieraziz, horrelakoak behar izanez gero, baina betiere, egoki deritzon beste edozein jarduera egin ahal izango du xede horrekin, urteko programa horretan aldeztu aurretik sartuta egon ez arren.

3.- Lasarte-Oriako Udalak herritarrek udal-organo desberdinetan parte hartzea sustatuko du, eta horren araubide juridikoa ere erregulatu ahal izango du. Herritarrari arreta zuzena eskaintzeko dauden bideak antolatu eta jakinaraziko ditu.

49. Artikulua. Inskribatu daitezkeen erakundeak.

45. artikuluan adierazitako baldintzak betetzen dituzten eta hurrengo artikuluetan deskribatutako prozedura jarraitzen duten pertsona juridikoak inskribatu ahal izango dira Herri-Entitateen Udala-Erregistroan.

50. Artikulua. Eskabidea eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Interesa duten pertsona juridikoek Erregistroan inskribatzea eskatuko dute arauzko inprimakia erabiliz, eta horrekin batera, ondorengo dokumentazioa aurkeztuko dute:

- Partaidetza-prozesuen garapenean eta udal-interes orokorreko jardueren garapenean Udalarekin elkarlanean aritzeko borondatea agertzen eta konpromisoa bere gain hartzen dutela dioen adierazpena.



- Elkartearen, kirol klubaren edo fundazioaren Estatutuak, eta bertan argi adieraziko dituzte izena, jarduteko lurralde-eremua, helbide soziala, helburuak eta jarduerak, ondarea, erabili ahal izango dituzten baliabide ekonomikoak, eta entitatearen funtzionamendu demokratikoa bermatuko duten irizpideak.
- Inskripzioa egiaztatzen duen agiria eta Elkarteen, Fundazio pribatuen edo kirol klubaren Erregistroan duen zenbakia.
- Entitatearen gobernu-organoa osatzen duten pertsonen izena eta NAN.
- Entitatearen helbide soziala.
- Aurtengo aurrekontua.
- Aurtengo urtean garatu beharreko jardueren programa.
- Bazkide kopurua egiaztatzen duen ziurtagiria, elkarteak eta kirol klubak direnean.

Aipatutako dokumentazio hori nahitaez aurkeztu beharko dute inskribatu ahal izateko, lehendik Udalaren esku egon ezean.

51. Artikulua. Eskabideei buruzko ebazpena.

1.- Inskripzio-espeditenteei buruzko ebazpena eta horren jakinarazpena 30 laneguneko epean egingo da, inskripzio-eskabidea dagokion Erregistroan sartu den egunetik aurrera kontatzen hasita.

2.- Eskabidearen izapideak, ebazpena eta errekurtsoen araubidea Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitakora egokituko dira.

3.- Inskripzioa ukatzeko, arrazoiak eman beharko dira, eta inskripzioa egiteko eskatutako baldintzaren bat egiaztatu ez izana arrazoi nahikoa izango da horretarako.



4.- Inskripzioa baiesten duen ebazpenean izendatutako inskripzio-zenbakia adieraziko da. Ebazpena egiten den egunean egindakotzat joko da inskripzioa, eta une horretatik aurrera, entitate eskatzaileak herri-entitatearen kalifikazioa erabili ahal izango du.

52. Artikulua. Inskripzioaren datuak aldatzea eta urtero berrikustea.

1.- Erregistroan inskribaturiko entitateek inskripzio-datuetan egindako aldaketa guztien berri eman beharko dute, aldaketa egin eta hurrengo hilabetearen barruan.

2.- Urte bakoitzeko lehen lauhilekoan jakinarazi beharko zaio Erregistroari zein den jardueren urteko programa eta kirol elkarte eta klubetako bazkide kopuru eguneratua, eta baita zein diren aurreko ekitaldiko emaitzak eta zein egunetan egin zuen Batzarrak edo Patronatuak azken bilera bere gobernu-organoak aukeratzeko, entitatearen Estatutuekin bat etorritz.

53. Artikulua. Herri Entitateei buruzko ezagutza.

1.- Inskribatutako entitateak errazago ezagutu eta aztertu ahal izateko, erregistroan izena emanda dauden entitateen jarduera eta barne-funtzionamenduari buruz garrantzitsuak jotzen diren datu guztiak sartu ahal izango dira Herri-Entitateen Erregistroan. Nolanahi ere, udaletik jasotako diru-laguntzak ere sartu beharko dira.

2.- Erregistroan ageri diren datuak, bertan inskribatutako erakundeei buruzkoak, interesatuta dauden hirugarrengoei eskaini ahal izango zaizkie, betiere datu pertsonalak babesteari dagokionez indarrean dagoen araudia betez.

3.- Herri Entitateen Erregistroaren eta estatu eta erkidegoetako Elkartearen Erregistroen artean lankidetzaren egokia ziurtatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko dira.



54. Artikulua. Erregistroan baja ematea eta ondorioak.

1.- Aurreko artikuluetan adierazitako eginbeharrak ez betetzeak Erregistroan baja ematea eragingo du, eta inskripzioari berez dagozkion eskubideak galduko dira; nolana ere, eragindako entitateari entzun egingo zaio alde aurretik, egokiak iruditzen zaizkion alegazioak egin ahal izan ditzan, hamabost eguneko epean gehienez ere. Dagokion ebazpenaren aurka errekurtsioa aurkeztu ahal izango da, urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera.

2.- Era berean, Udalak ofiziosz baja eman ahal izango die inolako jarduerarik egiten ez duten entitateei. Horretarako, dagokion espedientea izapidetuko da, eta bertan, nolana ere, hamabost egun lehenagotik Entitate interesatuari entzuteko izapidea jasoko da.

3.- Azkenik, entitateak idatziz hala eskatzen badu eta adierazitako ondorioekin, Erregistroan duen inskripzioari baja emango zaio.

2. Atala.- Herri-entitateen eskubide eta betebeharrak.

55. Artikulua. Herri Entitateen eskubideak.

Herri-entitateek, arau honetan jasotako baldintzetan, ondorengo eskubideak edukiko dituzte:

- a) Beren helburu sozialarekin loturiko gaiei eragiten dieten udal-xedapen orokorrak lantzeko prozesuan parte hartzeko eskubidea izango dute eta, bereziki, jendaurreko izapide publikoa ireki izana beren helbidean jasotzeko eskubidea.
- b) Erakundeekin batera, herritarrek parte hartzeko jardunbide egokiak ezarri eta garatu daitezela sustatzeko eskubidea izango dute.
- c) Herritartasun-balioen hezkuntzan laguntzeko eskubidea izango dute.



- d) Udalak ematen dituen sariak jasotzeko eskubidea izango dute, dagokion araudian aurreikusitako baldintzetan.

Halaber, espediente batean interesatuta dagoen edo izapide egokian alegazioak aurkeztu dituen herri-entitateak dagokion Batzarraren Batzorde-bilerara joan ahal izatea eskatu dezake, baldin eta, eguneko gai-zerrendaren arabera, bera interesatuta dagoen espedientea aztertuko bada. Dagokion bilkuraren deialdia egin eta hurrengo 48 orduen barruan egin beharko da idatziz eskaera. Idatzi horretan herri-entitateak adierazi egin beharko du zein den bere intereseko gaia, baita ordezkari gisa joango diren pertsonak ere, eta gehienez ere bi izango dira. Lehendakaritzak egiaztatuko du entitate eskatzaileak interesatuaren izaera betetzen duela edo alegazioak aurkeztu dituela. Egiaztatu ondoren, entitate eskatzaileari bilkurara etortzeko gonbita eskainiko dio.

Bilkurara gonbidatutako herri-entitatearen esku hartzea Lehendakaritzak baimendu beharko du, behin bakarrik esku hartuko du eta eguneko gai-zerrendako dagokion puntuan izango da, eztabaidari ekin aurretik. Lehendakaritzak erabaki bidez mugatuko du horren iraupena, bilkura horretarako adostutako esku-hartze kopuruaren arabera.

56. Artikulua. Udalaren bitartekoak eta baliabideak erabili ahal izatea.

Herri-entitateek, Herritarren Arretarako Zerbitzuan aldeztu aurretik eskaera aurkeztuz gero, udal-baliabide publikoak erabili ahal izango dituzte, lokalak bereziki, udalak horien erabilerari eta lagapenari buruz ezarrita duen araudiarekin bat etorritik.

Era berean, Udalak sustatzen dituen heziketa-ekintzetan parte hartu ahal izango dute eta interes orokorreko jarduerak egin daitezela sustatzeko baliabideak erabili ahal izango dituzte, diru-laguntzen deialdi egokien bidez.



57. Artikulua. Jardueren programa.

Urtero, urtarrilean, eta Erregistroaren kudeaketaz arduratzen den unitateak eskatuta, herri-entitateek, memoria labur baten bitartez, dagokion urterako aurreikusitako jarduera-programa jakinaraziko dute, baita hori gauzatzeko dauzkaten baliabideak ere. Halaber, eskatzen zaizkien erregistro-datu eguneratu guztiak jakinaraziko dituzte.

58. Artikulua. Erantzukizuna.

Herri-entitateek beren gain hartuko dute udal-instalazioetan egindako erabileraren erantzukizuna eta erabiltzeak eragin ditzakeen kalteen ardura.

59. Artikulua. Betebeharrak ez betetzea.

Betebehar hauek ez betetzeak, aldez aurretik kontraesanezko espediente egokia izapidetuz gero, entitateari Erregistroan baja ematea eragin dezake.



XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehen xedapen gehigarria. Udal-jarduerak sustatzea.

Udalak, herritarren partaidetzarako plan gidariak ezartzen duen testuinguruan, behar diren jarduketa guztiak sustatuko ditu, udal-antolamendua ahalik eta argiena eta malguena izan dadin eta herritarren ekimen eta proposamenetara zabalik egon dadin, baita herritarren elkarte autonomoak indartu eta pertsoneri beharrezko gaikuntza eskaintzeko ere, udal-gai publikoetan hobeto eta maizago esku hartzeko baliabide eta bitarteko egokiak erabil ditzaten.

Bigarren xedapen gehigarria. Topagune eta Jardunaldietan parte hartzea.

Udalak, herritarren mugimenduekin eta gizarte zibilarekin batera, printzipio horiek babestuko dituzten nazio eta nazioarteko Topaketa eta Jardunaldiak sustatu eta horietan parte hartuko du. Udalak beharrezko neurri guztiak hartuko ditu gomendio horiei jarraitzeko eta Udal-Jardunbide Egokiak, Tokiko Agenda 21, Hiriko Plan Estrategikoa, Plan Integralak eta Garapen Komunitariokoak abian jartzeko, eta oro har, printzipio horiek babesten dituzten udalaz gaindiko Foro eta Itunekin bat egiteko.

Hirugarren xedapen gehigarria. Udal-erabilera publikoaren izendapena erdiestea.

Arau hau indarrean sartu aurretik udal-erabilera publikoaren izendapena erdietsi duten elkarteek horren jabe izaten jarraituko dute, emandako baldintza berdinetan.



XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehen xedapen iragankorra. Herri Entitateen Erregistroan inskribatzeko baldintzak egiaztatzea.

Arau hau indarrean sartzen den egunean Elkarteen Udal-Erregistroan inskribatuta ageri diren Elkarreek eta bestelako taldeek Udal-Fitxategian inskribatuta egoten jarraituko dute.

Elkarteen Udal-Erregistroan inskribatuta dauden elkarreek, herri-entitateen kalifikazioa erdietsi nahi badute, eskatu egin beharko dute, adierazten zaien dokumentazioa aurkeztuz.

Bigarren xedapen iragankorra. Kontseiluen funtzionamendu-arauak eta parte hartzeko sistemak.

Lasarte-Oriako Udalean Herritarren Partaidetzarako dauden Kontseilu eta baliabide guztiek sei hilabeteko epea izango dute beren eginkizunak, helburuak eta funtzionamendu-erregimena araudi honetan ezarritako arauetara egokitzeko.



AMAIERAKO XEDAPENAK

Amaierako lehen xedapena.

Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta handik hogeitau egunetara sartuko da indarrean.

Amaierako bigarren xedapena.

Erregelamendu hau indarrean sartzen den egunetik, udaleko ordenantza eta erregelamenduetan jasotako xedapenetatik derogatura geratuko dira erregelamendu honetan xedatutakoaren kontra dauden guztiak.